

4. Segurtasuna

4.2. Datu pertsonalen eta identitate digitalaren babesa:

4.2.3. Interneten erostea

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala

**Datu pertsonalen eta
identitate digitalaren
babeza**

Interneten erostea




CRUE

REBIUN

Red de Bibliotecas Universitarias

HELBURUA

Jarduera hau egin ondoren, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:




AURKIBIDEA

- Lehen pausoak: aholku baliagarriak
- Erosi bitartean
- Zer gertatzen den gero
- Gehiago jakiteko...

INTERNETEN EROST


Galdetu al diozu inoiz zeure buruari...

- Interneten erosteak arriskurik ba al duen?
- Nola eragotz dezakezun inork iruzur egitea?
- Zer eskubide dituzun erostun gisa?



LEHEN PAUSOAK AHOLKU BALIAGARRIA

- ✓ **Interneten erosi aurretik**, ziurtatu erabiltzen duzun gailua birusen aurka konfiguratuta eta babestuta dagoela, datu-trukean kalterik gerta ez dadin.
- ✓ Erabili orri ofizialak, konfiantzazkoak edo ospe eta prestigio egiaztatua dutenak, denda faltsuetan erostea saihesteko.
- ✓ Informazioa hirugarrenek ez lapurtzea bermatzeko, garrantzitsua da ziurtatzea konexio seguruko webgune batean erosten ari zarela. Horretarako, erreparatu ea nabigazio-barran https protokoloa eta giltzarrapo itxia agertzen diren. Giltzarrapoaren gainean klikatuz gero, ziurtagiri digitalari buruzko informazioa ikusiko duzu, baita haren autentikotasuna egiaztatzeko xehetasunak ere (adibidez, baliozkotasun-data).



LEHEN PAUSOAK AHOLKU BALIAGARRIA



✓ Ez erabili wifi publikorik online erosketak egiteko, oso erraza baita hirugarrenek datu-trukea bereganatzea eta jarduera iruzurtietarako baliatzea.



✓ App bat deskargatuz gero, segurtatu ofiziala dela. Aurretik, baina, begiratu zer iruzkin eta balorazio egin dituzten beste erabiltzaile batzuek app horri buruz. Ez ahaztu eskatzen zaizkizun baimenak berrikustea, eskaintzen zaizunerako beharrezkoak diren ala ez erabakitzeko.

LEHEN PAUSOAK AHOLKU BALIAGARRIA



- Garrantzitsua da datu-babesari, harremanetarako datuei, salmenta-baldintzei, bidalketei, itzulketei, erreklamazioei eta lege-erreferentziei buruzko informazioa bilatzea webgunean. Orriaren amaieran egon ohi dira.
- Webgunearen pribatutasun-politikari ere erreparatu behar zaio, jakiteko nori emango dizkiogun gure datu pertsonalak, zertarako erabiliko dituen eta ea beharrezkoa den informazio hori ematea. Ez eman behar baino datu gehiago erosketa eta/edo etxera eramateko zerbitzua eraginkorra izan dadin.



Bilatu sarean zer iritzi duten beste erabiltzaile batzuek saltzaile edo webgune bati buruz.

LEHEN PAUSOA AHOLKU BALIAGARRIA



Kontuz iruzurrekin!

- ★ **Phishing-a:** erabiltzailearentzat ezaguna den webgune baterako estekaren bitartez, pasahitzak, datu-pertsonalak edo banku-datuak eskatzen dira, eta, gero, iruzurra egiteko erabiltzen edo saltzen dira.
- ★ **Carding-a:** kreditu- edo debitu-txartelen zenbaki baliozkoak modu iruzurtian erabiltzen dira Interneten erosketak egiteko. Horregatik, gomendatzen da txartelekin lotuak ditugun kontuetako mugimenduak aldi berean behin berrikustea eta zordunketa susmagarriei erreparatzea.

EROSI BITARTEAN

- ✓ Webgune askok erregistratzea eskatzen dute erosi ahal izateko. Horretarako, sortu pasahitz seguru bat, zenbakiz, hizkiz eta karaktere bereziz osatua. Erabili beti pasahitz desberdin bat webgune bakoitzean, eta ez partekatu inoiz.
- ✓ Ziurtatu produktuaren prezioa azken prezioa den ala zergak edo bestelako kargurik gehitu behar zaion.
- ✓ Ez fidatu pagotxez.
- ✓ Zure erabiltzaile-kontuak segurtasun-gomendioak betetzen baditu (pasahitz segurua izatea eta webguneak egiaztapen bikoitza egitea ordaintzean), horren arabera gordeko da ordainketa-era.




EROSI BITARTEAN

Begiratu zer ordainketa-era komeni zaizun:

- 1 Eskudirua bidaltzea:** banku-daturik trukutzen ez den arren, ez da metodo segurua, ez baita erregistratzen nork bidaltzen duen dirua, ezta nork jasotzen duen ere; hortaz, zaila da dirua erreklamatzeko, batez ere iruzurra dagoenean.
- 2 Produktua jasotzean ordaintzea:** oso metodo segurua da, produktua jaso eta dena ongi dagoela egiaztatutakoan ordaintzen baita.
- 3 Banku bidezko transferentzia:** diru-transferentzia bat egiten da saltzaileak adierazitako kontu-zenbakian. Nazioarteko transferentzietan, batzuetan zaila da dirua erreklamatu eta berreskuratzea.



EROSI BITARTEAN



4 Txartelarekin ordaintzea: onena soilik online ordainketetan erabiltzeko txartel bat izatea eta erosketa berresteko sistema duten webguneak erabiltzea da. Halako sistemek egiaztapen-kode bat bidaltzen dute telefono mugikorrera.



5 Bitartekarien bidez ordaintzea: beste enpresa bat erabiltzen da ordainketa kudeatzeko; adibidez, PayPal edo Iupay. Enpresa horrek saltzailearen eta erostunaren banku-datuak kudeatuko ditu, eta ordainketa formalizatzeaz arduratuko da.

ZER GERTATZEN DEN GER

Produktua erosi ondoren, eskubide hauek izango dituzu:

- Arauz, erosketari edo kontratuari uko egin diezaiokezu, azalpenik eman gabe, erosi ondoko 14 egunetan. Salbuespenak: bidaia-txartelak, hotel-erreserbak, ibilgailuen alokairua, elikagaiak edo janaria etxera eramateko zerbitzuak, eduki digitalak, etab.
- Uko egin edo bermea erabiliz gero, erostunak ez du kosturik ordaindu behar, ezta bidalketa-gasturik ere.
- Komunikazio komertzialak zure baimenarekin egin behar dira; horretarako, egiaztapen-lauki bat markatu behar duzu, eta, horretaz gainera, etorkizunean aldatu nahi izanez gero, komunikazioetan baja egiteko prozedurak erraza eta doakoa izan behar du.



ZER GERTATZEN DEN GER

- Europar Batasunaren araudiaren arabera, erositako produktua akastuna bada edo ez baditu betetzen iragarri edo eskaintako ezaugarriak (prezioa, zergak eta bidalketa-gastuak barne), erostunak aukera hauetakoren bati heldu ahalko dio:

- produktua konpontzea
- produktuaren ordeztze bat jasotzea
- prezioa merkatzea
- ordaindutakoa itzultzea



GEHIAGO JAKITEKO...

Espainiako Datu Babesaren Agentzia:

[Interneten erosketa seguruak egiteko gida praktikoa](#)

Infografia: [Interneten erosketa seguruak egiteko gomendioak](#)

Internautaren Segurtasun Bulegoa:

[Online erosketa seguruak](#)



**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



Basque Culinary Center

Biblioteka

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
T. 943574514
biblioteca@bculinary.com

Enpresa Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
T. 943718009
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Dorleta, z/g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
T. 943714157
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

Goi Eskola Politeknikoa

Biblioteka

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
T. 943794700
biblioteca.mgep@mondragon.edu